

EKONOMIAREN TALAIAN

Europa, soziala ala militarra?



JUAN MARI ARREGI

Datorren igandean Europar Parlamenturako hauteskundeak ere izango dira. Seguruenik alderdi politikoez nahiago izan dute gai militarrek ezkututzea, eta botoak lortzeko helburuz, denak arduratu dira gehiago gai sozialen inguruan. Baina datorren legegintzaldian segurtasun politika izango da Europako Komisioaren eta Euroganberaren ardatz nagusia, Europar gudaroste baten proiektu militarra baita Europar Batasuna integartzeko prozesuaren apustu garrantzitsua.

Horretan ari dira jadanik funtzionarioak eta diplomatikoak, proiektu militar horrek eta "europar gudaroste" izenak jendartean sor dezakeen eraginarekin kezkatuta. Europako Alderdi Popularrerako hautagai den eta EBko hurrengo presidente izan daitekeen Manfred Weber alemaniarrek esana da: "Anbizio handiak izan behar ditugu. Europan berriz gerrarik ez egotea funtsezko ideia da. Gaur pentsaezina da. Baina europar gudaroste partekatu batekin erabat pentsaezina litzateke".

Europako gastu militarra, zatikatuta egonik ere, 2018an 284.000 milioi dolarrekoa izan zen -Espainiako Estatuak 18.200 milioi gastatu zituen eta Frantziakoak 63.800 milioi, euskaldunen zergekin-, AEBetako gastuaren atzetik (649.000 milioi dolar). NATOk bozeraile ohi Jaime Seha analistaren ustez "militarki lehiatu behar gara gure baloreak defendatu nahi baditugu". Beraz, armagintzara baliabide gehiago bideratzearen alde dago, sektore horretako lobbyek egunero EB presionatzaren duten gisan. Euskaldunek eta europarrek aukera polita dute erabakitzeke Europa sozialagoa ala militarragoa nahi ote duten. Hauteskunde hauetara aurkeztzen diren alderdi politikoez publikoki eztabaidatu behar lukete hain larria den gai honi buruz, ezkutatu beharrean. ●

ANALISIA



JUAN PABLO FRIAS / WIKIPEDIA

Dopina: edozerk balio al du egoa elikatzearen?

JON TORNER ZABALA

Dopinaren aurkako euskal agentziak zigortu egin ditu bi ziklista beterano, EPO baliatu dutelako, *El Correo* jakinarazi duenez. Raul Portillo munduko txapeladun da M40 mailan -errepideko lasterketa eta erlojuaren kontrakoa irabazi zituen 2018an-, eta Jose Antonio Larrea ere hainbat probatan nabarmendu da M30 mailan -2016an Espainiako txapelketa irabazi zuen-. Portillok, halaber, Quebrantahuesos zikloturista martxa ezaguna "irabazi" zuen iaz.

Hainbat jenderi, baita ziklismoa praktikatu edo jarraitzen duenari ere, entzun eta irakurri diogu albisteak "harritu" egin duela. "Zer nezesidade dute amateurrek horretarako?!". Ni, harritu nauena da hainbat jende horrelako albisteek harritzea. Nezesidadea, ba ez dakit, esaten da dopatzaren den kirolariak bi helbururekin egin ohi duela: dirua irabazteko, edota lortutako balentriengatik txaloak jaso eta egoa elikatzeke. Pentsatzen dut bigarren horretatik gehiago dutela bi protagonistek, baina auskalo.

Egoeraren absurduak eragiten duen auzolotsa albo batera utzita, auziak eztabaida interesgarriak eragin ditu, bereziki zenbait zikloturista martxaren izaerari tiraka. Albert Valero marketinean aditua da txirrindularitza eta triatloi diziplinetan. Bere txioak laburbiltzen du esan nahi dudana: "Ziklista batek Quebrantahuesos (QH) irabazi duela esatea arazoaren parte da. Martxa zikloturistetan, sailkapenak kentzearen eta norberari mezu elektroniko bat bidaltzearen aldekoa naiz, soilik zuk egindako denborarekin, zuk zeuk soilik izan behar duzulako zeure arerio". Bat nator QH "irabazi" izanaren inguruan diotenekin. Ez da konpetizio bat, beraz gisa horretako terminologia, podiumak, hedabideek erreproduzitzen dituzten sailkapenak eta bestelakoak baztertzea hobeto.

Behin egin dut QH, duela urte mordoak, gehiegi sufritu gabe bukatzeko asmoz. Lortu nuen helburua. Nire atzetik gehienek 300 lagun helmugaratuko ziren, baina ni kontentua. Paisaiak, giroa, antolaketa... Oroitzapen ona dut. Sailkapenak, bost axola, nik nirekin egin nuen. Ziur parte-hartzaile ugari izan duela sentipen bera. Baina, berriro joango banintz? Ziur, hasteko, denbora hobetzen saiatuko nintzatekeela, edo lagun-taldekoiekin luzaroago eusten, edo... Uste dut pizgarri horiek politikak direla, saltsa sortzen dutela. Kontua da noiz eta zergatik heltzen garen muga ustez logikoak haustera eta autoestimua elikatzearen truk erokeriak egitera. ●